

@@@EBAZPENA, 2011ko ekainaren 29koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Kulturako sailburuaren 2010eko abenduaren 22ko Aginduko diru-laguntzak esleitzeko ebazpena argitara emateko dena. Agindu horren bitartez, araututa geratu zen nola banatu ondare dokumental ez-publikoa osatzen duten ondasunetan egitarauak gauzatzeko diru-laguntzak.@@@

Diru-laguntza publikoak emateko, ezinbestean bete behar da publikotasun-printzipioa. Hori dela-eta, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen Ebazpena, diru-laguntzen onuradunak eta emandako zenbatekoak adierazten dituena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, hargatik eragotzi gabe interesdunei banan-banan jakinaraztea, horrela xedatzen baita ondare dokumental ez-publikoa osatzen duten ondasunetan egitarauak gauzatzeko diru-laguntzak nola banatu arautzen duen Kulturako sailburuaren 2010eko abenduaren 22ko Aginduan.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.- Kulturako sailburuaren 2010eko abenduaren 22ko Aginduaren babesean 2011ko ekitaldian emandako diru-laguntzen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea. Agindu horren bitartez, araututa geratu zen nola banatu ondare dokumental ez-publikoa osatzen duten ondasunetan egitarauak gauzatzeko diru-laguntzak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 29a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.